I. Lurra, Unibertsoan kokatuta

“Unibertsoa misterio handia da oraindik lurtarrentzat. Hain teknologia kaskarra daukatenez, inguruko izarrak baino ezin dituzte ikusi eta, beraz, ez dakite ezer Unibertsoaz.
Ez dakite Unibertsoak hasierarik eta amaierarik ba ote daukan ere... Eta ezer ez dakitenez, Unibertsoa mugagabea dela esaten dute eta kito...! Harroputz halakoak! Haien ezjakintasuna bai dela mugagabea..!”

II. Bizia Lurrean

“Oso zaila da Lurreko izaki bizidunak sailkatzea, milaka tamaina eta itsura dauzkatelako. Badaude zelula bakarreko izakiak -lurtar batzuek eta halakoek ematen dute, nahiz eta zelula gehiago eduki!-, eta, haien ondoan, **balea urdina** *izeneko izaki bizidun izugarri handia ere badago, 30 (hogeita hamar) metro luze dena! Hori bai, ugarienak* **intsektu** *izeneko izaki bizidun itsusi eta nazkagarriak dira. Lurtar bakoitzeko, 200 (berrehun) milioi intsektu daude! Lurtarrek diote bi edo hiru milioi izaki bizidun mota daudela Lurrean. Berdin dio; beraiek ez badakite, ez naiz ni hasiko haien zomorroak zenbatzen ...”*

III. Lurtarren itxura

“Itxuraren aldetik, lurtarrak ez dira batere ikusgarriak. Gorputzetik lau atal luze ateratzen zaizkie. Beheko bi atalak hankak dira, eta ibiltzeko baino ez dituzte erabiltzen. Goiko bi atalak besoak dira, eta beste gauza guztiak egiteko erabiltzen dituzte. Gorputzaren gainean burua daukate, eta buruaren aurreko aldean, aurpegian, zazpi zulo dauzkate: bi zulo, arnasa hartzeko; beste bi, alboetan, soinuak entzuteko; zulo handi bat, jateko eta hitz egiteko; eta azken bi zuloak, dena ikusteko. Hala da, lurtarren gorputza zuloz beteta dago!”

IV. Lurtarren adimena

“Ikusi dugun bezala, lurtarrak ez dira batere ikusgarriak, kanpotik begiratuta. Eta barrutik ere ez dira ikusgarriagoak. Lurtarrek guztiz adimen mugatuta daukate. Oso datu gutxi prozesatzen dute batera eta oso datu gutxi gorde ahal dute beren oroimen txikian. Gainera, zahartzen direnean, burua moteldu egiten zaie eta gero eta gauza gutxiago dakite. Gauzak horrela, ulertzekoa da adimen horretatik ezer interesgarririk ez irtetea.”

V. Bizilekuak

“Lurtarrak ezin dira bakarka bizi. Espezie ahulegia dira horretarako. Horregatik, elkarrekin bizi dira, taldetan antolatuta. Lurtar gehienak leku finkoetan bizi dira, elkarren gainen pilatuta. Arrazoia oso sinplea da: Lurrean lur gutxi egoteaz gain, pertsonak bizitzeko moduko lekuak oso gutxi dira. Beste izaki bizidunak -landareak eta animaliak- habita naturaletan bizi dira. Lurtarrek, ordrea, natura apurtzen dute, beren bizilekuak egiteko. Oso erraza da lurtarren habitat artifizial horiek bereiztea: porlanez eginda daude eta grisak eta zikinak dira.”

VI. Garraiobideak

“Lurtarrak oinez ibiltzen dira. Baina oso astiro ibiltzen dira – orduko seiren bat kilometro baino ez dituzte egiten! - eta, gainera, berehala nekatzen dira. Horregatik, arinago ibiltzeko tramankuluak asmatzen saiatu dira betei. Lehenik, gurpila asmatu zuten. Milaka eta milaka urte behar izan zuten horretarako, baina historia liburu guztietan aurrerapen handia izan zela diote lurtarrek. Orain dela bostehun urte, Leonardo da Vinci lurtar jakintsuak makina bat asmatu zuen, lurtarrak azkarrago ibiltzeko, baina inork ez zion kasurik egin, eta lurtarrek gurpila bultzatzen jarraitu zuten. Lehen harrizko gurpilak eta orain gomazkoak. Gauzak ez dira hainbeste aldatu ezta?””

VII. Dirua

“Zaila da sinesten, baina Lurtarrek maiteago dituzte gauzak, pertsonak baino. Gauza bat daukatenean, handiago bat nahi dute; eta hura daukatenean, handiena, onena eta garestiena nahi dute. **Erosi** *da haien gustuko aditza, beti ahoetan daukatena:” Hauxe erosiko dut, bestea erosiko dut”. Gauzak erosteko, dirua erabiltzen dute, hau da, trukerako metal eta paper batzuk. Eta lurtarrek edozer egiten dute, metal eta paper horiek lortzeagatik. Egia esan, lurtarrek erosten dituzten gauzek ez daukate batere baliorik, eta trukerako metalek eta paperek ere ez, baina haiek ederki pasatzen dute gero eta gauza gehiago edukitzeko jolas horretan.””*

VIII. Lana

“Lurtarrak alferrak dira, berez. Horregatik, lana madarikazio hutsa da haientzat. Hala ere, bizirik iraungo badute, honetan edo hartan lan egin beharra daukate. Denetariko lanbideak asmatu dituzte. Lanbide batzuk beharrezkoak dira -nekazariena, adibidez-, baina beste asko barregarriak dira eta ez dute ezertarako balio -bulegoetan paperak eta paperak betetzen ibiltzea, adibidez-. Lanaren truke, dirua irabazten dute eta haren bidez gauzak erosten dituzte. Baina lurtarrak ez dira inoiz pozik egoten, haien uztez, ordu gehiegi ematen dute lanean eta diru gutxiegi irabazten dute.””

IX. Aisialdia

“Lehen esan dudan bezala, lurtarrek lotan eta lanean ematen dituzte eguneko ordu gehienak. Eta libre dauden orduetan ez dira oso libre egoten, ondoko gauza hauek egin behar dituztelako, besteak beste: laneko joan-etorria egin, erosketak egin, jatekoa prestatu, etxea garbitu, eta abar. Beraz, oso gutxi dira benetan libre egoten diren orduak. Lurtar gutxi batzuek denborapasa interesgarriak dauzkate ordu horietarako -liburuak irakurtzea edo hizkuntzak ikastea, adibidez-, baina lurtar gehienek hiru gauza aspergarri hauek egiten dituzte: telebista ikustea, alkohola edatea eta futbola ikustea.””

X. Aginteak

“Lurtarrak taldetan bizi dira eta gizartea osatzen dute, beraiek esaten dutenez. Jakina, gizartea nola edo hala antolatu beharra dago, lurtarren arteko harremanak bideratzeko. Hemen hasten dira, baina, arazoak, lurtarrak oso txarrak baitira gauzak antolatzen. Gizartea antolatzeko ardura agintariena da, baina, ikusi dudanez, agintari ia guztiek ez dituzte agintea eta boterea ongi bereizten eta herritarrak kontrolatu ea boterea beren probetxurako erabili besterik ez dute egiten, beraiek emandako legeen bidez. Asko kostata, gizartea antolatzen dutenean, beste arazo bat hasten da: mugak ipintzen dituzte, beren gizartera beste lurtarrik ez sartzeko.”

XI. Gerra eta pobrezia

“Lurrean gauza izugarriak ikusi ditut, baina izugarriena pobrezia eta gerra ikustea izan da. Lurtarren erdiak oso txiroak dira eta ez dute jakiten hurrengo egunean ezer jango ote duten. Bitxiena da besteei berdin diela. Arazoa ez da, baina, Lurrean nahiko janaririk ez dagoela, dirua oso gaizki banatuta dagoela baizik. Batzuek dena daukate, eta beste batzuek ezer ere ez. Eta dirua banatu beharrean, batzuek gero eta diru gehiago biltzen dute, eta besteek gero eta gutxiago daukate. Pobrezia ikustea oso gogorra da, baina askoz gogorragoa da lurtarrek elkar nola hiltzen duten ikustea. Eta hori ere ikusi behar izan dut bihotzetik gabeko planeta honetan!”

XII. Ingurumena

“Lurtarrek bizitoki bakarra daukate: Lurra. Handik kanpora, ezin dira beste inon bizi, haien teknologia oso kaskarra baita. Beraz, normalena beren bizitokia ondo zaintzea izango litzateke, baina lurtarrek ez dakite normalak izaten eta, hori egin beharrean, kalte besterik ez diote egiten Lurrari. Lurtarrek aurrerabidea asmatu dute. Haren izenean, era guztietako teknika, industria eta prozesu kimikoak jarri dituzte martxan, Lurra apurka-apurka kondatzen ari direnak. Martxa honetan, izaki bizidunean etorkizuna arriskuan egon daiteke Lurrean. Hori ikusita, lurtar zentzudun batzuk, aurrerabidea barik, “atzerabidea” bultzatu behar dela esaten hasi dira.!”